

EGUNGO EUSKAL KRIMEN-LITERATURA

Jose Manuel López Gaseni
Jon Kortazar (arg.)

Ur Apalategi
Maite Aperribay-Bermejo
Asier Barandiaran
Miren Billelabeitia
Mari Mar Boillos
Xabier Etxaniz

Karla Fernández de Gamboa Vázquez

Susana Jodra
Stewart King

Jon Kortazar

Jose Manuel López Gaseni
Jon Martin

José Antonio Morlesín Mellado

Santiago Pérez Isasi
Fco. Javier Rojo Cobos
Aiora Sampedro Alegria



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

CIP. *Unibertsitateko Biblioteka*

Egungo euskal krimen-literatura / José Manuel López Gaseni, Jon Kortazar (arg.) ; Ur Apalategi... [et al.]. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2021. – 320 p. : il. ; 22 cm. – (Euskal Literatura Saila ; 22)

Incluye referencias bibliográficas

D.L.: BI-01000-2021. — ISBN: 978-84-1319-338-0.

1. Novela negra (Género literario) – País Vasco. 2. Novela policiaca vasca.
3. Literatura vasca – Historia y crítica. I. López Gaseni, Manu, ed. II. Kortazar, Jon, ed. III. Apalategi Idirin, Ur, coaut.

891.69.09



Liburu hau Eusko Jaurlaritzak eratzten duen Ikerketa Talde Finkoen Sarean kokaturik dagoen eta Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (Literatura eta Identitate) Ikerketa Taldearen (IT 1397/19, GIU 20/26) eginkizunen barnean egin da.

Euskal Literatura Saila bildumaren zuzendaria: JON KORTAZAR

Azaleko irudia: Jesus Mari Lazkano. *La ciudad ideal*. Akriliko eta argazki-emultsioa oihal eta zink gainean. 175 x 182 cm. 1990. Museo Herreriano, Valladolid. Zatia.

Hizkuntza-orrasketa: UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak lagundutako liburua.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Euskal Literatura Saila bildumaren ISBN: 978-84-9860-730-7

ISBN: 978-84-1319-338-0

Lege gordailua: LG BI 01000-2021

AURKIBIDEA

Sarrera, Polizia- eta krimen-literaturaren sistema deskribatzeko oharrak, José Manuel LÓPEZ GASENI	9
Jon MARTIN ETXEBESTE 110. street-eko geltokia (1986). <i>Euskaldun baten erbeste bortitza edo herrimina hirian</i>	57
Asier BARANDIARAN <i>Aingeru Epaltzaren hiru eleberri intrigazkoak: Sasiak ere begiak baditik</i> (1986), <i>Ur uherrak</i> (1993) eta <i>Rock'n'Roll</i> (2000)	77
Xabier ETXANIZ ERLE <i>Bernardo Atxagaren Gizona bere bakardadean</i> (1993)	101
Ur APALATEGI <i>Itxaro Bordaren nobela poliziakoak: Amaia Ezpeldoiren zikloa</i> ..	113
Aiora SAMPEDRO ALEGRIA <i>Harkaitz Canoren unibertso literarioa eraikitzen: Estatu Batuen eragina</i>	161
Fco. Javier Rojo COBOS <i>Generoa mugaraino eramanez: Jon Alonsoren Zintzoen saldoan eleberriaren inguruan.</i>	173
Fco. Javier Rojo COBOS <i>Bestearen begirada: Jon Arretxeren nobelagintza beltza</i>	181
Miren BILLELABEITIA / Jon KORTAZAR <i>Ramon Saizarbitoriaren Lili eta biok</i> (2015). <i>Gerra Zibila eta Ikerketa-nobela</i>	191

Xabier ETXANIZ ERLE / Karla FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ <i>Nobela poliziakoa euskal haur eta gazte literaturan</i>	215
Santiago PÉREZ ISASI <i>Ramiro Pinillaren polizia-eleberriak: desoroimenaren aurka borrokan</i>	233
Maite APERRIBAY-BERMEJO <i>Dolores Redondoren El guardián invisible (2013)</i>	247
Susana JODRA LLORENTE / José Antonio MORLESÍN MELLADO <i>Azala erantziz. Euskal nobela poliziakoen liburu azalak</i>	265
Mari Mar BOILLOS <i>Sator lokatzak eta euskararen didaktika</i>	287
Stewart KING <i>Euskal polizia-nobela eta munduko literatura-ikeruntza</i>	303

Nobela poliziakoa euskal haur eta gazte literaturan

Xabier Etxaniz Erle /
Karla Fernández de Gamboa Vázquez

Hastapenak

Haur eta, batez ere, gazte literaturaz hitz egitean sarri aipatu izan da «irabazitako literatura»; hots, haur eta gazteentzat espresuki ez zena baina haiek bere egin dutena. XIX. mendeko idazlan klasiko asko horrela iritsi dira gaur egun haur eta gazteen eskuetara. Eta antzeko zerbait esan beharko genuke gertatu dela euskaraz idatzitako lehen nobela poliziakoarekin: *Hamabost egun Urgainen*. Jose Antonio Loidi Bizkarrondok 1955ean idatzitako obra hau Euskaltzaindiaren literatur lehiaketara aurkeztu eta aipamen berezia jaso zuen; lehiaketa ez zen haur eta gazteentzat, helduentzat baizik, eta horrela ekin zion bideari gure lehen nobela poliziakoak. Gaur egun, aldiz, nobela hori 1990etik aurrera Erein argitaletzeko gazte literaturan plazaraturik dago, seinale gazteek ere irakurtzen zutela eta irakur dezaketela Loidiren obra.

1950eko hamarkadan Euskaltzaindiak euskal liburugintza bultzatzeko premia ikusi zuen. Etxaidek (1984: 10) zioen bezala: «“Euskaltzaindia” izan zen gerla ondoren euskararen alde zedozer egiten hasi zena, (...) euskaltzaleak bere inguruan biltzen hasi zena eta animatzen gintuena lan egiteko» (Etxaide 1984: 10). Ekintza horien artean literatur lehiaketa bat eratu zuen eta, aurretik aipatu bezala, Loidik aipamen berezia eskuratu zuen 1955ean aurkeztu zuen nobelarekin. Liburuak, A. Irigarainen hitzaurrea du, eta ber-

tan honakoa adierazten da: «Gai (euska-liburuetan beñere jo ez dan polizia-gaia) bizia eta interesduna derabilla, euskara arront eta erri tar batean izkiribatua . Ezta iztegi bearrrik novela au irakurtzeko, eta euskal liburu batez au esatea ezta gauza ttipia zinez». Hamabost egun *Urgainen* obrak bi ezaugarri zituen, beraz, argumentu aldetik erakargarria (nobela poliziakoa zen aldetik irakurlea harrapatzeko gaitasuna zuen) eta erraztasuna hizkuntza aldetik. Ez gaitu harritu behar, beraz, nobela honek denboran aurrera egin ahala irakurle gazteen alde egitea. Are gehiago, 1961ean katalanez argitaratu zenean hitzaurrean J. Albertik dioena ikusi eta gero:

Quinze dies a *Urgain* és una obra de caràcter policíac, amb un argument del tot original en el gènere. Novel·la plena d'acció, tots els crítics bascs han coincidit a subratllar l'internés que desperta desde les primeres pàgines . L'estil és senzill, directe i col·loquial.

Nobela poliziakoa eta ekintzez betea zioen Albertik, eta horrela da. Idazlanaren abiapuntuak berak ongi asko adierazten digu nobelak hartuko duen erritmoa eta nondik norakoa: Txominek, *Urgaingo lurperatzaileak*, herrian hildako Egurmendi aberatsaren hilobia prestatu behar duela eta, urte batzuk lehenago hildako Egurmendi gaztearen emaztearen gorpua ikusten du, kopetan tiro bat duela. Asaldaturik, Herriburu jaunaren emazteari kontatzen dio aurkikuntza, eta azken honek Martin Garaiddi bere lagun eta ikerzaile denari ematen dio hilketa hura argitzeko agindua.

Horrela hasten da 30 kapitulu laburretan banaturiko nobela; hasiera-hasieratik irakurlea bereganatzeko egina, kapituluetan zehar Garaiddi ikertzaileak zenbait urte lehenago izandako gertakariak aztertu eta hiltzailea bilatzeari ekiten dio. Irigaraik, hitzaurrean, nobelaren originaltasuna aipatzen bazuen ere, nobela idazterakoan kontutan izandako zenbait idazleren izenak ematen ditu: Poe, Chejov, Alarcón, Verne, Simenon... Ez dakigu noraino izan zuen Loiddik idazle horien eta beste batzuen eragina, Ruiz de Alarcónen *Iltzea* obraren antza nabarmena da hasieran (kasu bietan hilerrian aurkitutako buru-hezur zulatu batek ematen dio hasiera idazlanari) eta Simenonen eraginari dagokionez,

euskaraz idazten trebatzeko oso gustukoa zuen polizia-nobela bat itzultzea bururatu omen zitzaion, Simenonen liburu bat zehazki, baina itzulpen hura egitea lan izugarria izan zitekeela konturatu omen zen eta bere kasa nobela bat idazteari ekitea pentsatu omen zuen, jenero poliziakoari utzi gabe. (Otaegi 2020)

Olaziregik berriz, apaldu egiten ditu Irigarainen hitzak: «Egia esateko, Loidiren teknika E. A. Poe generoaren maisu handiak erabilitakotik urrun dago, zeren eta elkarrizketen ahultasunari metaruzkinak gaineratu behar zaizkio, eta horiek suspensea deuseztatu eta erritmoa mantsotu egiten dute». (2002: 68), eta gauza bera egiten du M. Hernandez Abaituak (1982a) nobela poliziako gisa ez dionean balore handirik aitortzen.

Baina bere xx. mende Erdiko begiekin ikusita, nobela honek baliotza izan zuen, baita ere, euskarara ekartzeko gure hizkuntza aparte zeuden gaiak, 1958an E. Masek liburuaren gaztelaniazko hitzaurrean esan zuen moduan:

A primera vista una novela policíaca en vascuence parece una incongruencia. Esta antigua lengua se nos antoja apropiada para describirnos la vida sencilla de los pescadores y campesino con sus rústicos y primitivos problemas, apta quizás para las expansiones líricas de gentes sencillas o para la enseñanza religiosa, pero incapaz de expresar la movilidad de la vida moderna, con sus continuas inquietudes, alarmas y sobresaltos. Nada más lejos de la verdad.

Hamabost egun Urgainen lanaren irakurteraztasuna aipatua izan da lehenengo argitalpenetik; izan ere, hizkera herrikoia, arina, naturala eta bizia izateaz gain (Mitxelena, Garaite eta Sarasolak aipatu izan duten bezala) idazkera ironikoa eta umore-tonukoa darabil (Cillero). Horri gehitzen badiogu irakurlearen interesa sortzeko egitura kapitularra (kapitulu amaieran hurrengoan gertatuko denaren pistak emanez eta kapitulu hasierako izenburuekin, «Garaiddi larri», «Bide irristakorra», «Larrolaren aitortza», sorturiko espektatibak), ulergarria da nobela honek gaur egungo gazte eta helduak ere harrapatzea, eta aurretik aipatu izan dugun bezala gaztelaniaz, katalanez eta berrikiago, 2014an, ingelesez ere argitaratua izatea. Nobela hau izan baitzen, eta errekonozimendu hori onartu behar zaio, «beste hizkuntza batera itzulitako lehenengo liburu (katalanez argitaratu zen 1961ean)» (Sarasua 2011).

L. Otaegik (2020) dio *Hamabost egun Urgainen* euskal nobela poliziakorik irakurriena izan zela 1977ra arte. Eta, gainera:

Honekin batera aipatzen dira, Txomin Peillenen *Gauaz ibiltzen dena* (Zarautz, Kulixka 1967) eta *Gatu Beltza* (Bilbo, Gero, 1973) eta Mariano Izetaren *Dirua galgarri* (Tolosa, Auspoa, 1962). 1977z geroztikoak dira Xabier Gereñorenak eta Gotzon Garaterenak, beraz hutsune nabarmena zegoen garaia bete zuen Loidiren nobela honek.

Aipaturiko nobela horiek, gaiagatik eta erabilitako euskaragatik oso urrun geratu ziren (eta dira) gazteengandik, baina euskarazko haur eta gazte literatura sortu aurreko garaian aipagarria da Xabier Gereñoren ekarpena euskara errazean argitaratutako obrekin. Idazle bilbotarrak literaturaren erabilera egiten zuen hizkuntza bultzatzeko, hizkuntza ikas dezan irakurleak. Eta eskaintza paraliterario hori honela komentatzen zuen J. Sarrionandiak (1977a):

Euskal literaturak iraungo badu berezi egin beharko dira erabat literatura eta paraliteratura, eta bereizketa hau ez da kalitate kriterioetan oinarritzen idazlanen xederetan baizik. Xabier Gereñoren nobelak, eta berak ere aitortzen du, paraliterarioak dira (edo izango lirateke euskal literatura finkatu bat balitz) eta plan-teamentu eta helburu oso lejitimoak ditu sail honen barnean.

Antzerki lanak, biografiak, nobela laburrak eta nobela poliziakoak idatzi zituen besteak beste Gereñok, eta azken horien artean honelako izenburuak aurki ditzakegu: *Hiltzaile baten bila* (Kriseilu, 1975), *Es-pioitza* (Kriseilu, 1977), *Iruineako asasinatzea* (Kriseilu, 1977), *Jurgi kapitaina Britainian* (Egilea editore, 1978), *Osaba Gabrielen asesinatzea* (Egilea editore, 1978), *Xantxia kontesari* (Egilea editore, 1978)... Gereñok euskara ikasten ari zirentzat, eta euskaraz alfabetatzen ari zirentzat idatzitako liburu hauetako asko eta asko gazteen eskuetan ere ibiliko ziren.

Joseba Sarrionandiak (1977b), honako komentario hau egin zuen Xabier Gereñori buruz *Zeruko Argia* astekarian:

Azkenaldian nobela poliziakoak idazten ditu Xabier Gereñok. Izan ere texto horik narrazio koherente batetan gorpuzteko jenerorik egokiena da poliziakoa, oro egituralki lotzearena eta nolabaiteko suspentsearen abantailak baititu. Agatha Christie, Simeon eta Conan Doyle gustatzen omen zaizkio, nobela beltz amerikanoa baino areago, jeneroko joerei bagagozkio. Bestalde, euskal eskritoreen artean Xabier Gereño da nobela poliziakoa emaro kultibatzen duen bakarra.

Baina Xabier Gereñoren tarte horren ondoren euskal haur eta gazteentzat 80ko hamarkada hasieran idazlanak plazaratzearekin batera hasi ziren lehen nobela poliziakoak edo misteriozkoak argitaratzen. Eta nobela hauen nolabaiteko erreferentzia Enid Blytonen «Bostak» bilduma dugu. Protagonistak gazteak dira, kuriositateak edo interesak bultzatuta abenturetan murgildu eta misterioaren bat argitu nahi duten neska-mutikoak.

1980ko hamarkadatik aurrera

1980ko hamarkadatik aurrera hainbat liburu plazaratu ziren eta nabarmena da, arestian aipaturiko gazte koadrila izaera horrez gain, liburu horietan ez dela bortizkeriarik edo heriotzarik, ez da odollik... edo oso gutxi.

1981ean Iñaki Aldai ezizenez Anjel Lertxundik plazaratu zuen *Portzelanazko irudiak* (Erein, 1981), bertan hiru neska-mutil, Idoia, Xabier eta Mikel, beren txakurrarekin misterio bat argitzen saiatuko dira (E. Blytonen lau neska-mutilek Tim txakurrarekin egiten zuten bezala urte horretan bertan euskaraz argitaratzen hasi ziren «Bostak» sailean). Kasu honetan hiru gazte donostiar hauek portzelanazko irudi baten barnean aurkitzen dute paper puska bat eta horrek altxor baten lekukotasuna ematen die. Altxorra eskuratzeko, baina, hiru paper zati aurkitu eta osatu beharko dituzte eta ibilbide horretan gaiztoen kontra aritu beharko dira eta, amaieran, amaiera zoroentsuan jakina, Donostiako hiriarri emango diote altxorra gazteek.

Joxemari Iturralde, 80ko hamarkada erdian sortu zuen Risky pertsonaia. Herrian oportretan dagoen mutiko horrek bere lagun-taldea du eta haiekin ibiltzen da era guztietako pasadizoak izanik, baita errugabe baten defentsa bilatzen *Sute haundi bat ene bihotzean* (Pamiela, 1994) liburuan. Neska-mutilek inolako errurik ez duen gizon baten alde jartzen dira hau sute batzuen sortzaile moduan atxilotzen dutenean. Koadrilakoen artean, hainbat abentura bizi ondoren, gizonaren errugabetasuna erakusten du eta suteen jatorria argitzen

Euskal Herritik urrun, Buenos Airesen, kokatu zuen, berriz, Xabier Mendiguren Elizegik *Tangoak ez du amaierarik* (Elkar, 1988), eta ikertzailea, misterioa argituko duena ez da talde bat, gazte bat baizik. Fokuen argiak ikustean pailazo bat zorabiatzen dela eta, protagonistak zirkuko jendearen mundua ikertu egingo du zorabioen misterioa argitu nahian. Kontu horretatik abiatuta Pantxo gazteak zirkukoaren barnean dauden jokabideak, pakete susmagarri batzuen mugimendu eta misterioekin egingo du topo, bai eta errepresio politikoarekin ere.

Aurretik ere egin dugu erreferentzia misterioa oso erakargarria suertatu dela gazteentzat, oso gai aproposa dela irakurlea harrapatzeko, zaletzeko... eta horregatik ez gaitu harritu behar 1990ean Amaia Ormaetxeak 16 urte zituelarik idatzitako *Erinias taberna* (Elkar, 1990) misteriozko liburua plazaratzea. Ikastegiko lan bat zena, irakasle eta argitaratzaileen laguntzaz gazteentzako nobela poliziakoa bilakatu zen.

Kasu honetan ikertzailea polizia da; Jennifer andereak bere lehen kasua du sute baten ondorioz gertatutako heriotza. James MacCrae etxeak su hartutakoan hil egiten da seme-alabak umezurtz utziz. Sutea, baina, nahita sortarazitakoa izan dela ondorioztatzen dute suhiltzaileek eta hortik aurrera Jennifer ikertzaileak herentziak, joko zorrek, seme-alaben arazoez eta beste hainbat kontuk sortaraziko zailtasun eta korapilo nahasiekin egin behar die aurre lanei. Eta, pixkanaka, polizia kasuko korapilo guztiak askatzen joango da kontua argitu arte.

Garai horretan, sorkuntzan bakarrik ez itzul lanetan ere nabarmena da misteriozko liburuak. Eta hiru estilo oso ezberdin aipatzearen, M. Neuscháfer-Carlón idazlearen *Gaizki ateratako argazkia* (Elkar, 1992), H. Jürgen Press-en *Eskubeltz* taldearen abenturak (Elkar, 1984) liburua eta A. Martín eta J. Ribera idazle katalanen *Postariak beti deitzen du mila aldiz* (Elkar, 1994) nobelak aipa ditzakegu. Lehena aurretik komentatu izan ditugun lagun-taldeen estiloko obra dugu. Neskatila bat bahitu dute eta Uwe eta bere lagunek kontua ikertzen dute pista argigarrira iritsi arte: gaizki ateratako argazki bat. Eskubeltz taldea, aldiz, oso liburu sinplea izanik, nabarmena da testuaz gain irudiek duten inportantziagatik misterio-jolasa planteatuz (irakurleak testuan egiten zaion galderari erantzuna bilatu behar dio eskuin orri guztia betetzen duen irudian); Martín eta Riberaren nobela, aldiz, gazteentzako liburua da, bertan neska batekin irten nahi duen gazteak nahi gabe Silvia eta bere burua ere sartzen ditu lapurreta, bahiketa eta ekintza ugarien zurrunbiloaren erdian. Intriga eta misterioa, umorearekin batera agertzen dira nobela bitxi horretan.

Horiez gain, arestian aipaturiko «Bostak» saileko 16 liburu argitaratu ziren euskaraz 1981 eta 2000 bitartean. Eta hain ezaguna ez bada ere, Giltza etxeak 2009 eta 2013 bitartean bederatzi liburu plazaratu ziren «Lau lagun eta erdi» sailean. Haietan ere lau neska-mutiko eta txakur bat dira protagonistak, baina Enid Blyton-en sail ezagunean ez bezala, egungo gizartean kokaturik daude Joachim Friedrichen idatzi eta Mikel Valverdekin ilustraturiko liburuok.

Baina euskal haur eta gazte literaturan ekarpen garrantzitsuren bat egon bada nobela poliziakoan sorrarazi duen obregatik, horixe dugu 1980ko hamarkada amaieran Madame Kontxexi-Uribe Brigada & Detektibe saila, Anjel Lertxundik idatzia eta Antton Olariagak ilustratua.

Madame Kontxexi-Uribe

1988ko ekainean ikusi zuten argia «Madame Kontxexi-Uribe Brigada & Detektibe saileko lehen bi liburuek eta urte eta erdi ge-

roago plazaratu ziren 6 liburuko bilduma osatzen zuten azken biek (beste bi liburu ere —*Harakin deskalabratuaren kasua* eta *Bertsolari hitz totelaren kasua*— iragarrita egon ziren baino inoiz ez zuten ikusi argia).

Lertxundik misteriozko liburuak eskaini nahi izan zituen gazetxoentzat, baina, batez ere, umorea eta hizkuntza jolasa izan zen idazlearen proposamena. Eta hori, lehenengo liburuko hasieratik nabari da.

Kaxkajo habituaren kasua (Erein, 1988) dugu bilduma lehen liburua, eta bertan azaltzen zaigu nola sartzen den Madame Kontxexi Uribe detektibe lanetan. Lehen lana izanik protagonistaren aurkezpena egiten zaigu hasierako orritik bertatik

Madame Kontxexi Uriberen ehun eta hogeiki kilo pasatxoko pisu ondradua ohearen ertzean zegoen eserita. Ipurdi bikain, opa-roek hondartuta zeukaten koltxoia eta, ondoren, jaiki zenean, lasaitasun arnasetan bezala baretu ziren Madame Kontxexiren pistuik libratutako koltxoi hondoratua, jergoi zimurtua, ohe jipoitua. (Lertxundi 1988a: 5)

Eta Madame Kontxexirekin batera haren semea ere aurkezten zaigu: «Han zegoen, mahaira bapo eserita, unibertsitatean sendagintzako lehen urteko lehen lauhilabetea aurrera atera asmoz jo ta ke lan etengabean zazpi urte neketsu zeramatzan bere seme Bixentiko.» (Lertxundi 1988a: 5-6).

Madame Kontxexi irakaslea da, eskola batean ari da eta laster iritsiko zaio jubilazio eguna baina telefono zenbaki batek erabat aldatuko du emakume lasai, bare eta patxadatsu honen bizitza. Bixentikok esaten dionez: «gure telefonoaren zenbaki berdintsua ipini dietela Ertzainei ere, eta lapurreta bat den bakoitzean, edo norbaitek ustekaberen bat duenean, urduritasunez edo, hor nahasten direla biktimak eta gure etxera deitzen dutela.» (Lertxundi 1988a: 9).

Telefono deien kontua dela eta, Madame Kontxexiri ideia bat bururatzen zaio: «Hona deitzen duela baten batek? Saia gaitzen geu haren arazoak konpontzen. (...) Ertzain gaixoez hainbeste lan omen dute... Zergatik ez diegu, bada, lagunduko ahal dugun neurrian?» (Lertxundi 1988a: 12)

Jakina, erabaki horretan badute zerikusia, Bixentikok amari esaten dion bezala, Madame Kontxexiren almohadaren pean ezkutatuta egoten diren Agatha Christie, Simenon, Patricia Highsmith, eta abarren liburuek. Eta horrela, txiripaz, telefono zenbaki bat dela medio, andereñoa detektibe bilakatuko da Anjel Lertxundiren libu-

ruetan. Bildumari hasiera ematen dion liburuan, txakur baten desagerpena izango da ikerketaren abiapuntua: «nire txakurrak bart etxetik aldegin du eta ez zaigu gehiago azaldu (...) txakur apartekoa da: berak ekartzen digu egunero kioskotik etxera periodikoa» (Lertxundi 1988a: 17).

Madame Kontxexi txakurra aurkituko duela esaten die honen jabeai, eta horrela, eskolara iristean bere ikasleei laguntza eskatzen die: «—Zuetako inork ikusi ote du ikastolarakoan txakur galduren bat? Labradorreko Retrievier Gorri bat...» (Lertxundi 1988a: 29) eta ikasleen interesa erakarri ondoren andereñoak hordagoa bota die ikasleei: «Kaxkajoaren jabea oso kezkatu dago. Lagunduko al diogu bere txakur koittadua aurkitzen? Ea, ez al duzue zuek Kalimotxo talde bizkor, ausart eta xeble hori osatzen?» (Lertxundi 1988a: 29).

Ikasleei botatako enbido horrek badu erantzuna ikasle baten aldetik, Labrador penintsulatik etorritako itsasontzi baten berri ematen baitio Madame Kontxexiri. Ikasleen buila, zalaparta eta saltoen artean zuzendariak, Madame Maripetralak, espediente bat irekitzea erabakitzen du Madame Kontxexiren kontra eta ikastolatik botatzea... berez, albiste txarra izan behar zena pozez hartzen du honek, horrela desagertutako txakurraren misterioa argitzeko astia izango duelako.

Misterioa azkar asko argitzen da Madame Kontxexi aipaturiko itsasontzira joatean eta han bahituta geratzen. Andereñoak ahozapia eta eskuko lokarriak askatu eta laster asko argituko du bahitu duten txakurraren misterioa. Bai eta hurrengo goizean lasai asko bueltatu bere lanpostura harro-harro.

Bilduma honetako liburuek ez dute aparteko meriturik misterio edo liburu poliziako aldetik. Ikusi ahal izan dugun bezala gure protagonista zuzen-zuzenean doa itsasontzira eta bertan askatzen du misterioaren korapiloa (bertakoekin borroka ondoren... jakina), eta alde horretatik ematen du misterioa idazleak erabiltzen duen aitzakia bat dela obra idazteko eta bere benetako helburua lortzeko. *Paris de la France-ko pateen kasuan* (1988, Erein) lanean, are nabarmenagoa da hori. Liburu horretan bi kasu labur biltzen baitira ehun orritan; lehena loro baten hilketa, bigarrena pateak lapurtzen dituenarena; eta bietan oso modu sinplean argitzen da misterioa, eta konpondu, aldiz, ezkontzen bidez. Anjel Lertxundik tonu umoretsu eta freskoa duten obrak idaztea bilatzen du. Hitzekin jolastuz, deskribapenetan, elkarriketetan, irakurlearengan irribarrea sorraraztea.

Kapituluen izenburuetatik bertatik nabari da arestian komentatutakoa. Hona hemen liburuetako kapitulu izenburu batzuk:

- Jaiki beharra beti da triste,/ hori ez da inorentzat albiste (Kaxkajo...)
- Tori ezan espedientea, maitea,/ eta etxean pasa ezan aste betea. (Kaxkajo...)
- Odolkiak izaten du ordaina / eta seko haserretu da kapitaina. (Kaxkajo...)
- El Corte Ingles-eko beherapenak / eta Demetrioen penak. (Paris de la France...)
- Aperitibo eta bazkari, / ekin dio madamek lanari. (Paris de la France...)
- Nahiz basoan otsoa topatu / Madame ez da Txanogorritxu. (Eskiatzaile...)
- Nola duen arrosak arantza, / hala Santi Mamiñek arrantza. (Estalaktita...)

Baina kapitulu izenburuak, barneko kontakizunaren berri ematen digunak, bide ematen dio narrazioari eta hor era guztietako hitz joko eta deskribapen umoretsu aurki ditzakegu. Hasteko pertsonaien deskribapenetik, aurretik Madame Kontxexi eta Bixentikorekin ikusi ahal izan dugun bezala. Baina norberaren deskribapenaz gain, ekintzen bidezko karakterizazioa darabil Lertxundik; horrela ari da, esaterako, Madame Maripetral zuzendariak: «Sudurzuloak mugitu zitzaizkion zuzendariari ehize zakurra erbi baten atzetik dabilenean bezala, zerbaiten susmoan, usainketan, zelatari...» (Lertxundi 1988a: 36); edo Dexpaxio ezineko ikaslearena:

Gelako guztiek beren buruak jiratu zituzten azkeneko mahaian esertzen zen Dexpaxiorenagan. Beno, Dexpaxio ez zen Dexpaxio, Jose Maria Iturrimendi Larrarte baizik, baina mundu guztia deitzen dion Xexpaxio, ba, hori, mantso ibiltzen zelako, eta oso berandu erreakzionatzen zuelako, eta inoiz ezertarako presarik izaten ez zuelako eta... Ondo ulertu da zergatik deitzen zioten gelako guztiek Jose Mari Iturrimendi Larrarteri Dexpaxio, ezta? (Lertxundi 1988a: 38)

Madame Kontxesiren filosofian, bizitzaz duen jokabidean ere nabari da umore puntu hori, liburuan zehar mantentzen dena eta batzuetan nabarmen ageri. Esaterako jan kontuetan. Emakume honen ezaugarrietako bat (azkarra izateaz eta jendearekin tratua nahiko ona izateaz gain, besteak beste) jakiteko gogo da. Horregatik Madame Kontxexik frigoko kirtena behe partean zuen, «zerbait jan nahi zuen bakoitzean gimnasia ere egin beharko zuela eta.» (Lertxundi 1988a: 52), eta gimnasia egin ondoren... «—Neska,

jatearen plazerra gimnasia piska batez goxatzen baldin badun, ki-
loek bere horretan segitzen dituen, baina nik, behintzat, sendagilea-
ren aholkuak jarraitzen ditudala esaterik bazeukanat.» (Lertxundi
1988a: 52).

Jateko kontuetan Madame Kontxexiren ifrentzua Bixentiko
dugu (beno, jateko kontuez aparte gainerako gauza gehienetan esan
beharko genuke). Eta hori argi eta garbi ageri da amak semeari idaz-
ten dion eskutitzean, non irakurleak amak darabilen ironia eta ja-
nari simulak ere ikusi ahal izango dituen:

Bixentiko, bihotzeko bakailoa pil-pilean:

Irten egin behar dut. Ardura zaitez zeure bazkariak. Gaurkoz
nahikoa izango duzu arrutz egosi batez. Ba al dakizu nola presta-
tzen den? Lehendabizi ontzi bat hartu behar da, bertara ura bota
ete gero ura berotzen jarri. Irakiten hasten denean, ura eta ez on-
tzia, arrautza bota behar duzu uretara. Gutxi gina nahi baduzu,
zure ohea egin ezazu, tarte horretan primeran izango duzu-ta
arrautza. Asko egina nahiko bazenu, berriz, aspiragailua pasa etxe
guztitan eta ordurako egin samarra izango duzu arrautza. Beno,
ba, ondoren, arrautza ontzitik atera, kraskatu (kontuz, oso beroa
egongo da eta, ez zaitezela erre, koittadu melokotoi fresko hori),
baso barera bota, gatza pittin bat erantsi, eta gero jaten hasi, ogiaz
lagundurik.

On egin dagizula, nire bihotzeko chantilly goxoa.
Zure ama Kontxexik. (Lertxundi 1988a: 53)

Umoreaz gain hizkuntzarekin jolastuz, egileak antzeko termi-
noen errepikapenak erabiltzen ditu ideiarri indar gehiago emateko,
azpimarratzeko hizlari edo narratzailearen asmoa: «Ertzaina beti he-
rritarren zerbitzuan, hauxe da Akademian behin eta berriro erakutsi
ziguten lema. Ala, esan, adierazi, bota, jaurti kezkatzen, arduratzen
eta kakalarritzen zaituen guztia.» (Lertxundi 1988b, 20).

Hizkuntzarekin jolasteko joera hau Lertxundik haurrentzat
idatzitako beste obra batzuetan ere nabarmendu da («Kontatzeko
manera ximplea oso lortua dago eta xinpletasun hori ez da kasuali-
tatezkoa. Modu honetan idatzitako prosa hau jostailuz beteta dator
bai hizkuntza aldetik nola gaia aldetik ere.» Mikel Hernandez Abai-
tuak, 1982b, zioen moduan *Tristeak kontsolatzeko makina* liburuari
eginiko komentarioan).

Lertxundik nobela poliziako bat idazterakoan (hala gertatu zen
baita ere *Hamaseigarrenean aidanez* obran), ikertzaile sinesgarria
egin behar du, eta sinesgarritasun horretan Euskal Herriko gizarte
eta egoera hartu behar ditu kontuan. J. Kortazarrek zioen moduan

herri bakoitzak berari dagozkion ezaugarriekin jantzen du no-
bela poliziako. Gaurko Euskal Herrian, ez dute balio USAko
detektibeek, hemen egon ere ez daudelako eta, gainera, oso zaila
delako hemen poliziaganako sentibera azaltzea. Horregatik, de-
tektibea egon ala ez, ez dio ardura nobela poliziako batetan: ara-
zoa ikertzaile bat aukeratzean datza. (Kortazar 1983)

Kortazarrek aipatzen duen sentiberatasun falta hori poliziere-
kiko, aldatu egin zen, neurri batean, ertzaintzaren zabalkundeare-
kin, edo uste horretakoa da Madame Kontxexi, berari pena ematen
baitiote lanez gainezka omen dabiltzan ertzain horiek... eta horren
aurrean Lertxundik ikertzaile berezi eta aparta proposatzen digu
(aurrerago ere ikusi ahal izan dugun moduan). Lertxundiren iker-
tzailea ez da polizia, ezta ikertzaile profesionala, ikastolako irakaslea
baizik, eta gainera oso emakume lodia eta aurrera botatakoa. Eta lo-
ditasun horrek laguntzen du liburuetan zehar, Camilleriren Mon-
talbano detektibearen liburuetan bezala, janariaren presentzia ia
etengabea egoten. Umore punturako erabilia. Eta horixe ere, umo-
rearen presentzia, aurretik aipaturiko idazle italiarraren obretako
ezaugarria izanik, Montalbano eta Madame Kontxexiren obretako
beste parekotasun bat litzateke. Hori bai, batak polizia eta hilkete-
kin erlasionaturiko ikerketak egiten ditu; besteak, berriz, kontu as-
koz sinpleagoak argitzen dituen ikastolako andereño misteriozalea
dugu.

Madame Kontxexiren 6 liburuetako merituak batzuk dira,
alde batetik idazleak darabilen hizkuntza, ulergarria, sinplea eta
jolas moduan planteatua; bestetik, Madame Kontxexiren pertso-
naia, emakumezkoa, adoretsua, saltsa guztietako perrexila eta iro-
nia ederki darabilena; eta azkenik gure gizarteaz eta kulturaz kritika,
baina hori guztia umorea galdu gabe baino umorea etengabe pre-
sente egonik. Misterioak, azken finean, aurreko guztiak batzeko ai-
tzakia besterik ez da izan liburu hauetan. Nobela beltzetan gertatu
ohi den moduan, hilketaren inguruko ikerketa gizarteaz, norbana-
koaz eta gure harremanez gogoeta kritikoa egiteko aitzakia baino ez
baita.

Berriki, Irati Jimenezek *Elkar* aldizkarian eginiko komentario
batek argi eta garbi biltzen ditu Lertxundiren obra hauen balioa:

Eta gaur, hemen, halako beste harribitxi bat errebindikatzer
nator. Andu Lertxundi eta Antton Olariagaren Madame Kontxexi
Uribe Brigada & Detektibe saileko 6. alea berriakurri dut eta
bere sasoiari iruditu zitzaidana baino ganberroagoa eta hobea iru-
ditu zait. Gaztetxotan hainbat barre egin nituen *Sardina Ezpain*

Gorriaren Kasuarekin, baina ordukoak oraingoan erdia baino ez dira izan. Irakurri. Berrirakurri. Ikusiko duzue ez dela idatzi euskal literaturan gure tasun kultural elitista-garbizale-absurdo guztiak hain agerian jartzen dituen beste libururik. Esan, benetan, topatzen duzuen inon ama bahitu diotelakoan Sevillara doan Bixentiko baino gure parodia hoberik. Geure Ignatius J. Reilly da Bixentiko, bohemia & malditoa izan nahi duen kixote-kokolo bat, literatura egiteko adorerik ez duenez, literaturari buruzko teoriak egiten dituen, euskararen garbizalekerien errotetan denbora galtzen, euskaldunzahar tentel baten moduan, bere ondoan euskaldunberri askoz azkarrago bat duela konturatu gabe. Adingabe, gixajo, fraileki, euskaldun eta astun, azkenerako Bixentiko maitagarria egingo zaizu eta beharbada neure moduan hunkituko zara bere amak idazle izan nahi duen edonori eman dakioken aholkurik onena ematen dionean. Gure literatura-munduko Bixentiko guztiei eman ahal zaiena eta, bereziki, barru-barruan euskararen sotana jartzearekin mehatxu egiten dugun bakoitzaren ageri zaigun Bixentiko intimoari. «Literatura atsegin zaizu. Ondo da. Egizu literatura».

Apuntatu: Madame Kontxexi Uribe Brigada & Detektiberen *Sardina Ezpain Gorriaren kasua*. Euskal literaturaren eta euskal kulturaren analisi ganberroa eta hunkigarria. *La hoguera de las vanidades* labelduna, *Sin noticias de Gurb* bezain anarkista, *8 apellidos vascos* aurreko 8 apellidos vascos avant la lettre halamoduko bat, Tom Sharpe baten crescendo komiko jenialak lortzera iristen dena. Bertan aurkitu dut gure kulturari egin ahal zaion diagnostikorik zorrotzeta eta horrekin batera, gure txorrada eta eritasun guztietatik salba gaitzakeen botika. (Jimenez 2019: 7)

Mende amaieran, lan bakanak

XX. mende amaiera aldera hainbat misteriozko liburu argitaratu ziren, batzuk itzulpenak, Agustín Fernández Pazen *Lore erradioaktiboak* (Elkar, 1993) esaterako, fosa atlantikoan izaniko isurketa erradioaktibo baten inguruko misteriozko lana. Beste batzuk, aldiz, euskaraz sortuak. Pako Aristiren misteriozkoa dugu *Din-dan-don...* *Kanpai lapurrak non?* (Elkar, 1996), Bigarren karlistaldian kokatua dago liburua, eta Baptiste Lizarraga lapurrak Baionako bitxigile bati 500 kilo zilar lortzeko egiten dion tratuarekin hasten da. Beizaman tona bateko kanpaia egin dute eta soinu ona egin dezan erdia zilar eta beste erdia brontzezkoa egin dute, lapurrak, gerrate erdian, kanpaia lapurtu nahi izango du. Misterio eta abentura ugari, baina ez erabat nobela poliziakoa. Bai, ordea, urte berean Imanol Zalduak plazaraturiko *Hauts madarikatua* (Elkar, 1996). Oraingoan Bide-

gain detektibeak ikertu beharko du Anberestik Bilbora datorren droga-trafikatzailer bat. Drogen inguruko nobela bizia, ekintza askorekin eta amaiera zorionsua duena, neurri batean moralizatzailea; ikus bestela nobela amaiera aldean ageri den aipamena:

Poz eta negar iturria bihotz barrenean dago, eta barrengo hutsa ez dezake kanpoko ezerk bete, eta are gutxiago drogak.

Lokartzean finkatzen dugu oinarria, eta bere gainean finkatzen dugun guztia berehala erortzen zaigu hauts bihurtuta. (Zaldua 1996: 125-126)

Misterioa eta polizia ikerketa aurki dezakegu Igor Elortzak idatzitako *Margolana* (Alfaguara/Zubia, 1999) lanean ere. Nobela etorkizun hurbilean kokatu zuen Elortzak (2002an girotuta dago) eta institutu batean desagertu den margolan baliotsu baten inguruan da; narratzailea institutuko gazte bat da eta desagerpena ikerituko du. Izan ere, hasieratik nabari da misterio edo detektibe liburu baten aurrean gaudela (Agatha Christieren aipu batek ematen dio hasiera lanari) eta nazioarteko polizia, atezain susmagarria, ikasle gazteen jokabidea... elementu ugari erabiltzen dituela Elortzak irakurlea harrapatzeko. Manu López Gaseniren hitzetan:

Nobela honek irakurle gazteak harrapatzeko osagai guztiak dauzka: institutu baten inguruan kokatua, komiki-zaletasuna, teknologia berrien erabilera, gazteen arteko festak, lehen amodioak eta heldu gaiztoak. (López Gaseni 2000: 53)

Izu-taupadak

2003an Elkar argialetxeak gazteentzako liburuen artean nobela beltzak, poliziakoak, plazaratzeari ekin zion «Izu-taupadak» bilduma barruan. Hasiara batean nobela poliziakoak itzulpenen bidez etorri ziren gurera; horrela plazaratu ziren Swindellsen *Kale gorrian* (Elkar, 2005), Sinclair Smithen *Inork ikusi ezin duena* (Elkar, 2006) edo Andreu Martinen *Wendyk hegan ikasi zuen gaua* (Elkar, 2009). Andre Martinek bazituen lehenik Jaume Riberarekin batera Flanagan saileko hainbat lan euskaraz; oraingo honetan bera bakarrik ari da eta nobelan Wendy izeneko neskatu bati gau batean jazotakoak biltzen ditu. Sorgin batek aspaldian esan zion Wendyri hogeita hiru urte betetzen zituen egunean hil egingo zela; gaur da egun hori eta Wendy polizia (mosso d'esquadra da, Kataluniako polizia) mila saltsatan sartuko da gau ahaztezin horretan.

Euskaraz sorturiko lanen artean, aldiz, bada egile bat nabarmendu egiten dena azken urteotan plazaraturiko lanengatik, Jokin de Pedro.

Idazle bilbotar honek haurrentzako liburuak eta misterio edo beldurrezkoak ere bazituen plazaratuta (*Izu-izua*, adibidez), 2008an Gorospe inspektorearen lehen liburua kaleratu zuenean: *Irrurac bat* (Elkar, 2008). Aurretik ere, *Izu-izua* liburuko ipuinen batean kasu, pelikuletako erreferentziak nabari baziren de Pedroken obran, oraingoan hainbestetan ikusi dugun hilketa saioa agertzen zaigu. Garik emaztea hil nahi du eta, bere susmorik eta arrastorik egon ez dagin, hiltzaile profesional bat kontratatzen du. Gertakariak, baina, ez dira Garik uste bezala ateratzen eta Lidia, emaztea, hil beharrean honen lagun bat da hildakoa. Poliziak dituen susmoetatik Lidiak, azkenean, argi eta garbi ikusten du bere senarra izan dela erruduna.

Bost urte geroago, de Pedrok *Etsai gordea* (Elkar, 2013) plazaratu zuen. Kasu honetan telebista aurkezle ezaguna bat da mehatxuak jaso dituen eta nobelako kapitulu ia guztiak 2010eko apirilaren 15a eta maiatzaren 3a bitartean jazotzen dira. Amaiera aldean badira bi kapitulu hilabete batzuk beranduago girotuak. Alde horretatik oso nobela bizia da. Arriola jaunak mehatxuak jaso eta bere mundua hankaz gora jartzen dela ikusten du, eta horrela Gorospe inspektorea aurkezlearen bizimodua eta iragana ikertzen hasiko da.

De Pedrok tentsio puntu bat mantentzen du nobelan zehar, zenbaiten *in crescendo* doana, eta horrela lortzen du mehatxuak gora egin ahala (eskutitzetatik bonbetara) irakurlearen interesak ere gora egitea. Izan ere, *Elurpean* (Elkar, 2016) bere azken nobelan bezala, intriga, ekintza ugari, gertakari biziak, inspektore burugorria... erabiltzen ditu irakurlea animatzeko amaierako korapiloa nola askatzen den jakitera.

Elkarreko Izu-taupada horretan beste liburu poliziakoa argitaratu da, J. Urteagaren *Hilpuinak*, 2008, bertan sei ipuin biltzen dira «Txerriak txerritegira», «Susmorik ez», «Perfumea potto ttikian», «Basoko zarata mutuak», «Laster amaituko diagu» eta «Ipuin bat dugu bizitza»; ipuin bakoitza hilketa baten ingurukoa da eta azken ipuinean aipatzen den bezala: «Ipuin bat dugu bizitza; / orri zuria- ren idatziz goaz, / tinta amaitzen zaigun arte.» (Urteaga 2008: 163)

Azken urteotan

Eta azken urteotan panoramari amaiera emateko 2017an Erein etxeak plazaraturiko obra bat aipatu behar dugu, Felipe Juaristik

idatzitako *Iraganik gabe* (Erein, 2017). Intrigazko nobela honek oso hasiera zinematografikoa du. Protagonista esnatzen da, indarrik gabe, besoa hodi bati lotuta. Thesi ateratzen da eta ibilbide horretan bere kideek eta poliziak harrapatu nahi izango dute. Iheslaria etxe batean babestu da, aitona eta neskatila bat bizi diren etxean eta azken honekin, Veneziarekin, oso harreman berezia izango du.

Nobela beltzetan ohikoa den moduan ekintzez gain errealitate ezberdinak erakusteko asmoa ere ageri da nobelan, pertsonen arteko harremanak, bizi dugun gizartea... eta, batez ere, norberaren beldur, sentimendu eta kontraesanen erakusgarri:

Aitonak bazekien denbora kontua besterik ez zela, beariengana iritsik zirela, poliziak edo Zumarragaren lagunak. Era berean, bazekien oso gutxi egin zezakeela berak. Egon zen tentatuta telefonoa hartu eta ertzainei deitzeko, iruditzen baitzitzaien hobe zela ertzainen eskuetan uztea Nikolas, besteen eskuetan baino. Ez zen, azkenik, ausartu. Etxean gordeta zeukan gizona Veneziaren laguna zen; honek sekula izan ez zuen kidea. Horrek geldiarazi zuen. Bere buruari ere galdetu zion zer gerta ote zitekeen Zumarragaren lagunak lehenago etorri gero ertzainak baino. Ez zen iritsi galderaren amaieraraino. (Juaristi 2017: 85)

Ikusten den moduan Felipe Juaristik, idazkera arina erabiliz, ederki islatzen ditu aitona baitako pentsamenduak, haren beldurrak eta kezak... irakurlea irakurtzen jarraitzeko animatuz. Horixe baita, askotan, nobela poliziakoen ezaugarri nabarmenetako bat, irakurlea harrapatu nahi izatea eta azkeneko korapiloa askatu arte lotuta izatea.

2020. urtean, berriz, Juan Kruz Igerabidek *Arrastoa* (Alai, 2020) nobela plazaratu zuen. 1936ko Gerra Zibilean girotuta Guardia Zibileko detektibe bat dugu gertakarien kontalaria. Hilketa bat gertatu da Lekunberrin eta 1936ko uztailean, giroa bero-bero dagoelarik, detektibe horrek erabakitzen du bere nortasuna ezagutarazi gabe ikertzea herrian izaniko hilketa. Maisu errepublikazalea dago atxilotuta (hildakoa karlista amorratua zen) baina ikertzaileak ez du uste Donato maisua hiltzailea denik.

Nobelaren abiapuntuak bide ematen du nobela poliziako baten aurrean gaudela erakusteko; baita liburuaren kontrazalean ageri den testua... baina, hilketaren ikerketa hori badago ere, nobela kostunbrista baten aurrean gaudela esan behar dugu. Liburuaren zortzi ataletatik lehena sarrera gisa hartu behar da, ondorengo bostak Justino okin eta aguazilaren bizitzari buruzkoak, eta azken biak bakarririk erabiltzen ditu idazleak hilketa argitzeko.

Nobela atsegina da, gogorra kontatzen dituen kontuengatik (politikarien ustelkeria eta gorrotoa, mendekua, hilketa politikoak...) baina, arestian esan bezala, narratzailea detektibe bat izan, zein detektibe horren lana hilketa bat argitzea izan, argi dago nobelako protagonistak ez duela zerikusirik hilketarekin. Oraingoan, beraz, nobela poliziakoa aitzakia izan daiteke irakurlea nobelara erakartzeko.

XX. mendearekin batera helduen literaturan, nazioarte mailako literaturan, nobela poliziakoak sistemaren erdigunera egin zuen. Euskaraz ere egon dira saioak, eta badira hainbat idazle horretan ere aritu direnak, Alberto Ladron Arana, kasu; baina helduen literaturan baino, esango genuke haur eta gazte literaturan egin dela ekarpenik handiena. Irakurleak zaletzeko, hizkera zuzena eta bizia darabilenak, umorea eta esajeraziorako esparru egokia delako, eta, zergatik ez, kritikarako espazioa ere sortzen delako.

Euskal haur eta gazte literaturan nobela poliziakoak denboraldi ho-beak eta okerragoak bizi izan ditu, eta oraingoan obra gehiegi argitaratzen ez badira ere, bada kalitatezko irakurgai multzo oso interesgarria zaletuak sorrarazteko, irakurleen irudimena eta gogoeta bultzatzeko.

Bibliografia

- ARISTI, P. (1996): *Din-dan-don... Kanpai lapurrak non?* Elkar: Donostia.
 CILLERO GOIRIASTUENA, Javi (2000): *The Moving Target: A History of Basque Detective and Crime Fiction*. University of Nevada: Reno (NV). Argitaragabea.
 DE PEDRO, J. (2008): *Izu-izua*. Elkar: Donostia.
 DE PEDRO, J. (2008): *Irurac bat*. Elkar: Donostia.
 DE PEDRO, J. (2013): *Etsai gordea*. Elkar: Donostia.
 DE PEDRO, J. (2016): *Elurpean*. Elkar: Donostia.
 ELORTZA, I. (1999): *Margolana*. Alfaguara/Zubia: Bilbo.
 FERNÁNDEZ PAZ, A. (1993): *Lore erradioaktiboak*. Elkar: Donostia.
 GARATE, G. (2000): *Euskal Herriko Polizia Eleberria*. Elkar: Donostia.
 GEREÑO, X. (1975): *Hiltzaile baten bila*. Kriseilu: Donostia.
 GEREÑO, X. (1975): *Espioitza*. Kriseilu: Donostia.
 GEREÑO, X. (1977): *Iruñeako asasinatzea*. Kriseilu: Donostia.
 GEREÑO, X. (1978): *Jurgi kapitaina Britainian*. Egilea editore: Bilbo.
 GEREÑO, X. (1978): *Osaba Gabrielen asasinatzea*. Egilea editore: Bilbo.
 GEREÑO, X. (1978): *Xantxia kontesari*. Egilea editore: Bilbo.
 HERNANDEZ ABAITUA, M. (1982a): «Nobela beltza eta polizi nobela klasikoa», in *Jakin*, 25, 51-67.
 HERNANDEZ ABAITUA, M. (1982b): «Tristek kontsolatzeko liburua», in *Susa*, 1982-01 (<https://kritikak.armiarma.eu/?p=3998>)
 IGERABIDE, J. K. (2020): *Arrastoa*. Alai: Donostia.

- ITURRALDE, J. (1994): *Sute haundi bat ene bihotzean*. Pamiela: Iruñea.
 JIMENEZ, I. (2019) «Gora genero txikiak, Gora Bixentiko!», in *Elkar* 55, 7. <https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2019/03/Aldizkaria-55.pdf>
 JUARISTI, F. (2017): *Iragarik gabe*. Erein: Donostia.
 JÜRGEN PRESS, H. (1984): *Eskubeltz taldearen abenturak*. Elkar: Donostia.
 KORTAZAR, J. (1983): «Hamaseigarrenean aidanez: iragarritako sari baten kronika», in *Jakin*, 1983-09 (<https://kritikak.armiarma.eu/?p=3870>)
 LERTXUNDI, A. (1981): *Portzelanazko irudiak*. Erein: Donostia.
 LERTXUNDI, A. (1988a): *Kaxkajo babituaren kasua*. Erein: Donostia.
 LERTXUNDI, A. (1988b): *Paris de la France-ko pateen kasua*. Erein: Donostia.
 LERTXUNDI, A. (1988): *Eskiatzaile herrenaren kasua*. Erein: Donostia.
 LERTXUNDI, A. (1989): *Estalaktika rockeroaren kasua*. Erein: Donostia.
 LERTXUNDI, A. (1989): *Alarguntsa sikodelikoaren kasua*. Erein: Donostia.
 LERTXUNDI, A. (1989): *Sardina ezpain gorriaren kasua*. Erein: Donostia.
 LOIDI, J. A. (1990): *Hamabost egun Urgainen*. Erein: Donostia.
 LOPEZ GASENI, M. (2000): «Margolana», in *Behinola* 3. 53.
 MARTIN, A. (2009): *Wendyk began ikasi zuen gaua*. Elkar: Donostia.
 MARTÍN, A. eta RIBERA, J. (1994): *Postariak beti deitzen du mila aldiz*. Elkar: Donostia.
 MENDIGUREN ELIZEGI, X. (1988): *Tangoak ez du amaierarik*. Elkar: Donostia.
 MITXELENA, L. (1955): «Amabost egun Urgainen», in *Egan*. <https://kritikak.armiarma.eu/?p=6671>
 NEUSCHÁFER-CARLÓN, M. (1992): *Gaizki ateratako argazkia*. Elkar: Donostia.
 OLAZIREGI, M. J. (2002): *Euskal eleberraren historia*. Labayru. Amorebieta-Etxanoko Udala: Bilbo.
 ORMAETXEA, A. (1990): *Erinias taberna*. Elkar: Donostia.
 OTAEGI IMAZ, L. (2020): «Hamabost egun Urgainen (1955). Jose Antonio Loidi Bizkarrondo», in KORTAZAR, Jon (zuz): *Euskal Literaturaren Hiztegia*. <https://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=550>
 SARASOLA, I. (1976): *Historia social de la literatura vasca*. Akal: Madril.
 SARASUA, A. (2011): «Amabost egun Urgain'en», in *Eibartik*, 2011-02-28. <https://kritikak.armiarma.eu/?p=5366>
 SARRIONANDIA, J. (1977a) «Gudari bat», in *Zeruko Argia*, 1977-12-18. <https://kritikak.armiarma.eu/?p=2911>
 SARRIONANDIA, J. (1977b) «Paraliteratura militantea», in *Zeruko Argia*, 1977-12-10. <https://kritikak.armiarma.eu/?p=2919>
 SMITH, S. (2006): *Inork ikusi ezin duena*. Elkar: Donostia.
 SWINDELLS, R. (2005): *Kale gorrian*. Elkar: Donostia.
 URTEAGA, J. (2008): *Hilpuinak*. Elkar: Donostia.
 ZALDUA, I. (1996): *Hauts madarikatu*. Elkar: Donostia.